



PÉREZ ALDASORO, Pío: "Arrantzaleak eta arrantzagintza: hausnarketa bat lanari buruz", *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 4, Untzi Museoa-Museo Naval, Donostia-San Sebastián, 2003, pp. 589-594.

U·M

---

UNTZI MUSEOA · MUSEO NAVAL

Donostia · San Sebastián

---



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

# Arrantzaleak eta arrantzagintza: hausnarketa bat lanari buruz

**Pío Pérez Aldasoro**

*Euskal Herriko Unibertsitatea*

*Los valores sociales dominantes en la comunidad de pescadores de Pasaia son distintas respuestas culturales a los condicionamientos del medio y de la propia actividad. Entre estos valores tomamos el concepto sobre el trabajo que tienen los pescadores de Pasaia en su universo cultural, ya que nos aporta una reflexión sobre los modos de vida, los ritmos, las condiciones de trabajo y sobre las consecuencias directas en las jornadas o en los accidentes laborales.*

*The dominant social values within the fishing neighbourhood of Pasaia represent different cultural responses to the influence of the environment and the job itself. Among these values we choose the idea of work that the fishermen of Pasaia hold in their cultural universe, since it provides an insight into the lifestyle, the rhythms, the work conditions and directly influences the work-day and the incidences of labour-related accidents.*

## SARRERA

Orrialde hauetara ekarri nahi ditut nire doktorego tesiaren atal baten laburpena eta, bide batez, zenbait hausnarketa. Bertan saiatuko naiz aztertzen Pasaiaiko arrantzaleen komunitatean arrantzaleek beraiek lanari buruz dituzten baloreak eta hauek zein eragina duten lanbidearen arlo desberdinetan, besteak beste, lanaldietan eta jardueran egokitzen diren istripuetan.

Max Weber-en garrantzi etikoa alboratu gabe, T. Parsons-ekin batera uste dugu baloreak erabakigarriak direla gizarte dinamikan. Beste eragile ahaztu gabe, gizarte dinamikan ideiekiko atxikimenduak faktore garrantzitsuak dira. Gizarteko baloreak belaunaldiz belaunaldi igarotzen dira gizarteratze bitarteko formal eta ez formalen bidez, baina transmisio horretan baloreak aldatzen dira leunki, eta akordio edo desakordio guneak dira. Erkidego honetan dauden baloreek, zeren talde guztietan baitaude baloreak, arrantzaleen jokaera moldatzen dute, arrantzaleek beraiek horren kontzientzia eduki gabe. Balore multzo honek komunitatearen profila osatzen du, «ethos»a edo «World View»a da.

Pasaiaiko arrantzaleek ez dute talde edo komunitate homogeen eta bateratua osatzen, maila ezberdinetan hierarkizatutako erkidegoa da, eta euren interesak une askotan kontrajarriak dira. Hala ere, arrantzale komunitatearen partaideak dira eta horrela ikusten ditugu.

Zentzu orokorrean «arrantzale» izendapenak arrantzuntzian enrrrolatuak dauden pertsona guztiak izendatzen ditu, kategoria soziala desberdindu gabe. Izan ere, jendeak «arrantzalea» hitzarekin arrantzaz bizi den pertsona kontrajartzen du baseritik edo lantegiko lanetik bizi denarekin. Orduan, esan dezagun arrantzalea arrantza lanbide duen pertsona orori egokitzen zaiola, maila profesionala ezberdindu gabe.

Arrantzale guztiek errepikatzen dute bere lana astuna eta gogorra dela. Hala eta guztiz ere, euren gustukoa dela entzun daiteke noizbehinka, nonbait itsasoaren sareetan harrapaturik aurkitzen dituzte bere burua. Arrantzale gehienek itsasoarekiko sentimendu kontrajarriak adierazten dituzte; amodiozkoak, errespetuzkoak edota beldurrezkoak, besteak beste. Azken finean, sarritan adierazten dute itsasoak xarma berezia duela, baina bere baitan ondo baino hobe dakite itsas inguruneak hainbat arrisku gordetzen dituela eta lan jarduera zorigaitoz eta sufrimenduz beterik dagoela, hortik, bereziki, datorkie errespetua edo beldurra.

Lana eta esfortzuari buruzko arrantzaleen esanak osatzen ditu Pasaiako arrantzale erkidegoaren ikuskera eta balore sistema. Balore sistema hau arrantzaleen ekintzen aurreko gora beherak bideratzen dituen araudi ideala da, jarrera erdua izanik. Izan ere, lanaren kontzeptualizazioak aktoreen bizipen eta motibazio multzoak laburbiltzen ditu eta, neurri berean, desio, sentimendu, gogo eta gizarte egiturari buruzko zenbait jarrera.

## LANAREN KONTZEPTUAREN INGURUAN

Lanak, bizi esperientzia denez, zailtasunak agertzen ditu kontzeptualizatorako. Bere baitan sartzen diren alderdiak hain zabalak izanik, ezen espazio eta denboran zehar definitzea nekeza gertatzen baita. (Aizpurua, Rivera 1994: 13)

Mugatzeko dauden zailtasunez gain, kontzeptuari gehitu beharko genioke historian zehar baldintza sozio historikoek, politikoez edota ekonomikoek bere esanahian eragin dituzten aldaketak (Marin Benet 1993: 613). Lanari buruz XXI. mendean dugun iritziak ez du ezer ikustekorik gure arbasoek zutenarekin. Gauza bera esan dezakegu lanari buruz munduko kultura desberdinek duten balorazioa (Schwimmer 1980: 569), zeren lanaren kontzeptua sozio kognitiboki eratuta baitago, eta bere errealitateak lotura zuzena du kulturarekin eta gizartearekin.

Dena den, lana da gizakiok bizitzan zehar egiten dugun jarduera garrantzitsuenetakoa. Eginkizun honen bitartez gure iraupena bermatzen dugu; bere baitan egitura sozio kulturalak, eideitikoak eta oinarri materialak birsortzen ditugu; eta giza baloreak islatzen dira (Braudillard 1973: 23).

Honez gain, lanak zenbait hausnarketa bide eskaintzen ditu:

Lehenik, lanak gizabanakoari eskaintzen dio integrazio modua, eta bizitzari koherentzia eta esanahia. Hau da, lanbidearen bitartez, pertsonak euren bizitzari zentzu eta estimazioa gehi diezazkiekete, gizabanako sortzaile bihurtuta. Funtzio hau lana asebetetzaileraren denean betetzen da.

Bigarrenik, lana da identitate pertsonalerako bidea; hau da, lan esperientziak identitate pertsonala konfiguratzeko dute. Neurri batean, klaseen arteko antolamendua ezartzen eta hierakizazioa bultzatzen du.

Hirugarrenik, lanak pertsonen denboraren egituraketa antolatzen du: egunak, asteak, arrantzaleen kasuan marealdiak, kanpainak, eta abarrek sailkapenetan, alegia. Denbora egitura eta hau bizitzaren alderdi ezberdinetan islatzen da; hala nola: familiarretatik kanpoko pertsonekin harremanak izateko aukerak. Ondorioz, gure denboraren sailkapen erregulararekin, lanak gure bizitzari erreferentzia marko erabilgarria eskaintzen die.

Gizabanakoarenaz gain, lanak badu gizarte dimentsio bat. Bertan, besteak beste, aipatu beharra dago lanak subjektuari estatus eta prestigio soziala eskaintzen dizkiola. Bestaldetik, gure bizitzaren atal handiko elkarreragin multzoa lanaren inguruan garatzen dugu, gizakiarentzat harreman mailan garrantzizko funtzioa betetzen baitu. Izan ere, gune familiarretatik kanpoko pertsonekin harremanak izateko aukerak eskaintzen dizkigu eta harreman sozial eta elkarreraginerako aukeren iturria da.

Azkenik, lanak betetzen ditu arau, sinismen eta beste motako sozio espektatibak helarazteko funtzioak. Pertsonok, lanean elkarrekin komunikatzen gara eta komunikazio horren fruituak dira, besteak beste, gizarte ideiak, sinismenak eta baloreak bereganatzea. Baina, gizarte ideiak eta sinismen hauek ez dira bakarrik lanarekin lotuak, bizitzaren beste ataletatik informazio desberdinak jasotzen ditugu.

## LANAREN BALORAPENA

Kristautasunaren ezartzearekin Europako mendebalde osoan judu herriaren tradizioak eta baloreak zabaldu ziren. Tradizio honetatik jaso genuen, besteak beste, lan neketsu eta gogorraren balorea, zeina lehenengo gizakiaren jarrera maltzuraren ondorioz etorri baitzen. Adanek, Yavheren agindua bete ez izatearren, jaso zuen zigorra eta ordudunik, ogia eta bestelako elikagaiak izerdiaz lortu behar zuen; hau da, lana egin behar zuen bizi ahal izateko. Horrela, tradizio juduak lan gogorrari gizakiaren faktore askatzailearen kategoria eskaintzen dio, eta era berean, gizakia alferkeriatik, bizio guztien iturburutik, uxatzen du. Tradizio honi jarraiturik, lana bilakatuko da bertute guztien iturri, gizaki ororen onerako.

Pasaiako arrantzaleen egitura ideologikoan, lanak esangura positiboa hartzen du. Konnotazio positibo horrek gizaki saiatuaren irudia idealizatu egiten du, zeren eginahalean areagotzeak ingurune edo gizarte egoera desegokiei aurre egiteko bidea ematen baitu. Egitura ideologiko honen barnean erresistentzia,

eragozpen gainditzeko sendotasuna, lanean zorrotza izatea, ahaleginean aritzeko gogortasuna, kuraia edukitzea edo adoretsua izatea itsaskarien artean estimu handiko baloreak dira. Oro har, lanaren eta esfortzuaren idealizazioak arrantzaleen buru estimua asebetetzen du.

B.P.: «*Lanik gabe ez zegok ezer...*»

Orokorrean, Pasaiaiko arrantzaleek erakusten dute langintzari eta bertan saiatzeari atxikimendua, eta zaletasun aparta badutela. Esan omen dute arrantzale finak langile saiatua eta euskorra izan behar duela eta egoera zailen aurrean ez duela amorerik eman behar. Izan ere, eginahalean eustea da arrantzaleek duten baliabide pertsonal bakarra edo bakarranetarikoa bere langintzan. Ingurune arriskutsua, ziur gabeakoa eta konpetitiboak gutxiagotzeko edo inguru horri aurre egin ahal izateko arrantzaleek bere trebezia eta lan gogorrez baliatu behar dute. Orduan arrantzale trebeak saiatua eta euskorra izan behar du bere buruarekin, itsasoan aritzen den bitartean.

B.P.: «*Asko sufritu behar dik itsasoari zer edo zer atera nahi badiok...*»

Hori dela eta, itsasoan aritzen den jendeak arrakasta edukitzea lotzen ditu lanarekin, sakrifizio, neke eta bertutedun bizitzarekin. Patroi gehienek, behin eta berriro, diote bere arrakasta ekonomikoa edo egungo ongizate soziala bizitza deseroso eta lan nekagarrian bilatu behar dela. Patroia postua lortu ahal izateko merituak egin behar direla, lanean ahalegindu etengabe, okerrak jasan; hitz gutxitan, itsasoan aritzea zer den badakitela demostratu.

A.A.: «*Yo empece a la mar con 12 ó 13 años y para llegar a ser lo que soy he tenido que pasar por todo, sobre todo sufrir y currar como un negro...*»

Itsasoan arrakasta lortzen duen patroiak borrokalaria eta pertsona saiatuaren ospea du, kuraiaz eta ausartasunaz jokatzeko baitu. Gaur egun, Pasaian aritzen diren patroik gehienak, gaztetatik, 14-16 urterekin itsasoan hasiak dira. Hierarkia beheko postuetatik joan dira ofizioa ikasten, beste arrantzaleengandik ikasia; egun duten posizioa eta prestigio sozio-ekonomikoa eskura ahal izateko. Honengatik, bizitza eta, ondorioz, osasuna itsasoan galdu dutela diote; euren iraganaldia arriskuez, zailtasunez eta gabetasunez markaturik aurkitzen da. Euren usteetan, bada, arrakasta, prestigioaren azken azalpena, esfortzuan eta ahaleginean areagotzean datza.

«No obstante entre las cualidades del buen pescador se incluye la suerte. El buen pescador no se lo debe todo a ella. La suerte hay que buscarla, tentarla o merecerla. Se le puede pedir a la Virgen, pero solo quien reúne las demás cualidades del buen pescador, posee ésta a su vez. El espíritu cooperador, la inclinación al trabajo, la constancia, la fortaleza, la salud y una situación familiar adecuada son condiciones para merecer la suerte» (San Martín 1982: 61).

Lanari buruz honelako ikuskera edukitzeak bizipen eta erreakzio positiboak eragiten ditu arrantzaleengan. Dena den, pertsona orok bere lana baloratuko du kontzeptuari edo idealizazioari dion atxikimenduaren arabera. Lan kontzeptua, orduan, bizitzaren aurreko jarrera bailitzan aztertuko du, oinarri moral bailitzan.

Dena dela, arrantzale gazteak lanaren kontzeptualizazio hau desmitifikatzen ari dira, zeren lana eta esfortzuak kontsideratzen baitituzte mugikortasun soziala edo aberastasun estrategiak. Euren iritzietan, arrantzale komunitatearen pentsaera, balore sistema edo lanbidearen egitura aldatu beharra daude, garai berrietara egokituz. Arrantzale gazte gehienentzat itxarobidea diru lortzean zentratzen da, hots: lan egiten dute dirua irabazteko. Arrantzale gazteei aisialdiko uneak, lagun giroan egoteak eta bizitza estimu handiago sortzen diete, lankortasunari kasu handirik egin gabe. Lankortasunak edo lanean saiatzeak, euren ustez, ez dute balore moralik ordezkatzeko, soldata lortzeko bitartekoa besterik ez dira.

P.P.: «*El dinero es para poder disfrutar, para vivir mejor, yo paso de estar trabajando como un esclavo y luego no poder disfrutarlo. Eso lo tengo claro...*»

Arrantzale edadetuek uste dute gazteek ez dutela ardura posturik nahi, adibidez, unti jabegoari edo patroiarri ihes egiten dietela. Badaude patroik titulua duten gazteek ardura ez edukitzearen patroik postuari uko egin diotela. Lehorrean daudenean itsasoko gabetasunez ahaztu nahi dira, itsasoak asko baldintzatzen baititu euren bizierak. Era berean, edadetuek kexu dira, zeren patroiarri askotan gazteek aurre egin edo kritikatzeko diote.

P.P.: «*Lo peor de la mar es que vas perdiendo relación con los amigos, con tu pueblo y hasta con la familia. Yo creo que hay un peligro de que los pescadores sean una especie de marginados...*»

Belaunaldi, eta honekin batera zenbait pentsaeran aldaketa eman bada ere, Pasaiaiko arrantzale komunitateak lanaren kontzeptua ideal etikoa dela kontsideratzen jarraitzen du. Arrantzalearen pentsaerak lotura du lanaren balorazio positiboarekin eta aisialdiaren balorapena, berriz, ezkorrekin. Ideologia, baloreak eta gizarte harremanen antolaketa sistema teknikoak baino mantsuago aldatzen dira (Steward, 1992).

## LANALDIAK

Arrantzuntzietako lan antolaketa oinarrizko helburu baten inguruan zertzen da: ahalik eta gehien harrapatu denborarik laburrenean. Izan ere, zatikako sistemapean aritzen diren baxurako arrantzaleen egitekoak oinarrizko helburua indartzen du: somara lan egitea. Altuera eta altuera handiko arrantzuntzietan, berriz, gutxieneko soldata bermatua badute ere, ordainketa sistema zatikakoa da, eta honek antzekotasun asko agertzen du baxurako lan antolaketari dagokionean. Arrainketa sistema hauetan arrantzaleek harrapatutakoaren arabera diru portzentaia kobratzen dute, eta orduan agintariek denborarik laburrenean ahalik eta gehien harrapatzearen helburua aplikatzen dute, untziko armadoreen asmoak beteaz.

Lan filosofia hori dela eta, Lan Ordenantzak ez betetzeko baldintza guztiak ematen dira, lanaldiari dagokionean, behinik behin.

Estatuan indarrean dauden Lan Ordenantzen (E.D. 2001/83) artikuluko batek dio itsasoan eguneko lanaldiek ezin dutela izan 12 ordutakoak baino luzeagoak, ez bada ezinbestekak bultzatuta. Ezinbeste honek (istripuren batek, sarea uretan murgilduta egoteak eta beharra bukatu gabe izateak edo besteak) atea irekitzen diete gehiegikeriei eta, orduan ohikoena da lanaldia 12 ordutatik gora luzatzea. Lan Ordenantzaren beste atal batek dio lanaldi baten bukaeratik beste lanaldira gutxienezko atsedena 6 ordutakoa izan behar duela. Hau ere behin baino gehiagoetan ez da betetzen.

A.A.: «*El patrón se ríe de las ordenanzas laborales, si hay que currar, hay que currar. Las ordenanzas y las leyes están hechas por gente de tierra, que no tiene ni idea de cómo es nuestro trabajo...*»

Sindikatu batek orain hiru urte egindako ikerketa baten arabera Pasaiaiko arrantza alorrean astean landutako ordu kopuruaren batz bestekoa 86,5 ordutakoa izan zen. Ordu hauek honela banatzen ziren: altuerako arrantzan pertsona bakoitzeko astean landutako ordu kopuruaren batz beste 93,5 ordutakoa zen, baxurakoan baino zertxobait altuagoa. Baxurako arrantzan asteko ordu kopurua 80,5ekoa zen. Ordu zenbaketatik kanpo geratu ziren lehorrean egindako derrigorrezko atsedena, eguraldi kaskarrak, motoren matxurak eta antzekoak eta beste faktore exogenoak.

Oro har, itsasoan landutako ordu kopuru hauek lehorrean sartzen direnekin alderatzen badugu lanaldia %90eko luzeagoa dela aurki daiteke. Ohartzekoa da ere itsasoan sarturiko aparteko ordurik ez direla ordaintzen lehorreko edozein enplegutuan ordaintzen ohi den bezala.

A.A.: «*En la mar no existe reloj...*»

Landutako ordu kopuruez gain, itsasoko lanaren gogortasunez ohartzeko lan izaeraren beste alderdi batzuk ere kontutan hartu beharko genituzke, adibidez: lanaren erritmoa, esfortzuaren intentsitatea edo lanaldien artean dauden atsedendialdiak.

## LAN ISTRIPU ETA ERITASUNAK

Alderdi honetan lanari buruzko kontzeptzioak badu eragina, askotan segurtasunaren gainean produktibitatea nagusitzen da. Istripuak eragiten dituzten faktore exogenoz gain (itinerekoak, eguraldikoak, berezko arriskugarritasuna...), lanaren produktibitateak eragindakoak istripu kopuruaren erdia baino gehiagokoak dira (Montero Lerandi 1986).

Arrantzuntzian jasaten diren lan baldintza gogorrek zenbait gaixotasun, lesio eta narridura fisikoren agerpena errazten dute eta hauek askotan arrantzaleen lanetik erretiro goiztiarra azkartzen dute. Izan ere, lan istripuak dira lan baldintza zehatzetan suertatzen diren arriskuaren azken adierazpena, hauek produktibitate indize batzuk lortzeko bideratuak.

Jardueraren izaerak berak eragiten ditu, neurri handi batean, istripu eta eritasunak.

«La pesca tiene lugar en un entorno natural y social incierto y arriesgado. Las condiciones meteorológicas adversas tienen y producen hundimientos y averías en los pesqueros, pérdidas de vidas humanas y de días de trabajo. Este entorno incierto y peligroso incrementa el número de accidentes laborales, de enfermedades de gente dedicada a la pesca» (Sánchez Fernández 1993: 498).

Arrantzaleek pairatzen dituzten gaixotasun arrunten eragina, bederen, arnas bideetan agertzen da (besteak beste, bronkitis asmatikoa, sinusitisa, eta bronkoneumoniak), ordu luzeetan blai egoten baitira. Baita lokomozio aparatuan ere ugariak dira (artrosisa, lunboziatika, lunbozialgia, lunbalgia akutua, hernia diskalak eta antzekoak) esfortzuak eta hezetasunak hezur eta artikulazioen arerioak baitira. Era berean, liseri aparatukoak ohikoak dira ere (kolitis, liseri hemorragia, gastritisa, errektorragia).

Halaber arrantzaleek itsasoan lan istripu eta lesio anitz nozitzen dute.

«En cuanto a accidentes y siniestros, la actividad pesquera sigue siendo una de las actividades más peligrosas» (Battersby 1988: 349).

Hauen artean, ohikoenak, arrainen hozkadak, amu eta arantzez egindako zauriak, begi lesioak, hezur hausketak, makadurak eta traumatismoak. Torax, esku edota oinetan, bihurrituak eta luxazioak.

Temperatura aldaketa bat-batekoak eta baldintza meteorologiko latzek (temperatura baxuak, alde bate-tik, eta hezetasun handiak, bestetik) arnas gaixotasun kronizitate joera areagotzen dute. Bestalde, zama garraiaketa eta arrantzuntziaren kulunkak lokomozio aparatuan lesioak eragiten ditu.

Otordu desegokiak estres egoeretan eta dieta desorekatuek, hau da, fibra edukietan urria, idorrieria ekarri eta liseri aparatua hondatzen dute eta, ondorioz, arestian aipatutako gaixotasunak agertzen dira.

Istripu kopurua eta lan gaixotasunek agerian uzten dituzte arrantzaleen lan baldintza eta langintzaren zailtasuna eta gogortasuna. Guzti honi gehitu behar zaizkio, beste lan mota edo lan egoerarekin alderatu-tuz, arrantzaleen lan erritmoa eta lanaldien luzerak, biak oso nekagarriak izaten baitira.

«En consecuencia no puede perderse de vista la conexión dialéctica entre el accidente de trabajo y las relaciones sociales de producción del marco en el que el siniestro se produce» (Montero Lerandi, 1986:16).

Orokorrean, tripulazioak larrialdiak pairatuz gain, arrantzuntzian deserotasun fisiko eta psikikoak ere jasaten ditu. Besteak beste, espazio eta intimitate pertsonalaren eskasia, arrantzuntziaren kulunka irau-nkorra, familiatik bereziak egon beharra tarte luzetan, lanaldiak ordutan luzatuak, atsedendaldi ez nahiko-ak, higiene eta osasun baldintzak ez egokiak eta abar.

Esfortzu luzeak eta atsedeen ez egokiak nekea dakarte eta ondorengo aditasun falta, orduan lan istri-puak errazten dira. Istripuak edo lanean gertatutako ezbeharrak askotan fatalitate edo zorizko gauza bai-lira ager daiteke, baina, azken finean, eragina aurretik diren tentsioetan, nekean edo antsietan aztertu behar dugu, hauen ondorengoak baitira.

L.B.: «*Neke handiek eragiten dituzte erreflexuak ahultze eta atentzio galtzea eta honek istripu gehia-gorako arriskua sortzen du...*»

Oro har, Pasaiaiko arrantzaleek uste dute bere lana «lotura eta esklabutza handiko» jarduera dela, desosegu eta atsekabea sortzen dizkielarik. Era berean, «arrantza eta meategietako lana lanik okerrena direla» deritzote. Lehorrean, berriz, arrantzaleek erlaxatu eta astean zehar bildutako lan tentsiotik saihe-s-ten saiitzen dira; batzuk lagun giroan, beste batzuk berriketan, eta besteak tabernetan. Edaria askotan mozkorkerietan amaitzen da, baina desinhibitu eta mareako atsekabe eta frustrazioetatik ateratzen ditu, arrantzaleari bere buruan konfiantza eta euforia sortuz, baita elkarrekintza eta talde soziabilitatea erraztuz ere (Sánchez Fernández 1991).

## ONDORIOAK

Arrantzaleen artean esan ohi da itsasoan arrakasta nahi duen edozeinek itsasoan saiaturia izan behar duela. Arrantzaren ziurtasun ezari aurre egin diezaioten, arrantzaleek duten bidea lankortasuna da, honek estrategia moldagarri balitz funtzionatzen du, ingurune aldakorra eta desatsegina ekiditeko bidea, alegia. Gizarte baloreak oinarritzen dira erkidegoaren gehiengoaren onarpenak duen, edo garai batean zuen, bizimoduan. Baloreak elkarreraginetik sortzen dira eta kultura kolektiboaren isla bilakatzen dira (Merrill 1967: 167). Arrantzale komunitateak, espazioak eta denborak planteaitzen dituzten arazoan arabera, aukeratzen ditu arazo horiei aurreko konponbideak.

Testuinguru honetan lanari ematen zaion garrantziak ahalbidetzen du etorkizun itxaropentsua eta konfiantzaz hartzeko; arrantzale eta ingurunearen artean dagoen harreman estua lan saiaturarengatik baldintzaturia egonik. Arrantzale munduan lanari ematen zaion garrantzi kulturala koherentea da. Horrela bada, komunitate bat deskribatzen denean ikus daiteke berezko ezaugarriak dituela: bizimodua, erakun-deak, ahaidetasuna, biziera eta kosmobisioa.

Era berean, lanaren saiakuntzan areagotzeak arrantza enpresari produktibitate handiago eta errenta-garritasun hobea dakarkio; hau da, lanaren idealizazioak etekin ekonomiko handiagoa eskaintzen dio jabeari. Izan ere, testuinguru honetan, armadoreak edo patrioiak, beste kasuetan, modu errazean lortzen dituzte lanaldi luzeak eta arrantzaleek lanaren eritmo areago dezaten. Lanaren kontzeptua, dagoeneko, produkzio unitatearen errentagarritasuna lortzeko erabil daiteke. Armadoreak jakin badaki lan gehiago

burutzen bada harrapaketak ugaritzeko probabilitatea dagoela eta, beraz, etekin ekonomiko handiagoak lortu ahal izateko.

J.L.: «*Tanto a los armadores como al pescador nos conviene pescar mucho, cuanto más cojamos mejor, aquí todos salimos ganando...*»

Arrantzaleek jakin badakite ere lan ordu askotan zehar aritzen badira armadoreak lortuko duela etekin ekonomiko ugariagoa, baina azken finean, onurak banatzerakoan zatikako sistema edo portzentaia erabiltzen direla, eta horrela etekin handiagoa lor dezakete arrantzaleek beraiek.

Modu berean, lanari buruzko diskurtsoak untzian islatzen den hierarkizazioa eta maila zatiketa justifikatzen ditu, tostartekoan, arrantza gazteen edo edadetuen sumisio, konformismo eta adostasunak lortuz. Honela ere, diskurtso honen bidez, arrantza batzuen protesta eta kritikak estaltzen dira, eta produkzio bideen jabe goen kontrola, etekin banaketa sistema eta kritika eza sozialki legezkatzen da. Arrantzaileen komunitatean, lanaren balorapen baikorrak laguntzen du desberdintasuna eta hierarkizazio soziala mantsotasunez gizarteak onar ditzala, honela ordena eta egitura soziala arrazionalizatzen da eta berarekin loturik agertzen diren untzien barneko desberdintasun ekonomikoak. Ikuspuntu honetatik, arrantzuntzi jabeek aise bultza ditzakete mota horrelako estrategiak.

## BIBLIOGRAFIA

- AIZPURUA, M., RIVERA, A. (1973): *Manual de historia social del trabajo*, Siglo XXI, Madrid.
- BATTERSBY, R. C. (1988): «Perspectivas para el desarrollo económico y social ¿Son compatibles la pesca en alta mar y los pequeños barcos», in *Congreso Mundial Vasco. El sector primario ante el siglo XXI*, Aedos, Madrid.
- BRAUDRILLARD, J. (1973): *El espejo de la producción o la ilusión crítica del materialismo histórico*, Gedisa, Barcelona.
- MARIN BENET, M. R. (1993): «Antropología del trabajo», in AGUIRRE BAZTAN, A.: *Diccionario temático de antropología*, Boixerau Universitaria, Barcelona.
- MERRILL, Francis E. (1967): *Introducción a la Sociología (Sociedad y cultura)*, Aguilar, Madrid.
- MONTERO LERANDI, J.M. (1986): *Análisis sociológico de los accidentes laborales. El sector marítimo pesquero*, Instituto Social de la Marina, Madrid.
- SAN MARTIN ARCE, R. (1982): *La Albufera y sus gentes*, Akal, Madrid.
- SANCHEZ FERNANDEZ, J. O. (1991): *Ecología y estrategias sociales de los pescadores de Cudillero*, Siglo XXI, Madrid.
- SANCHEZ FERNANDEZ, J. O. (1993): «Antropología de la pesca», in AGUIRRE BAZTAN, A.: *Diccionario temático de antropología*, Boixerau Universitaria, Barcelona.
- SCHIMWER, E. (1980): «Los límites de la ideología económica: estudio antropológico comparativo sobre los conceptos de trabajo», *R.I.C.S.*, Vol XXXII, 3, Madrid, pp. 569-584.
- STEWART, J. (1992): «El concepto y el método de la ecología cultural», in BOHANNAN, P., GLAZER, M.: *Antropología. Lecturas*, Mac Graww-Hill, Madrid.

## ERANSKINA

Letra etzanarekin agertzen diren esaldiak informatzaile ezberdinen adierazpenak dira. Hauek dira bakoitzaren ezaugarriak

A.A.: Altuerako arrantzalea. 57 urte. Txikitatik hasi zen lanbide honetan, gaur egun arrantzu patroia da.

B.P.: Baxurako arrantzalea. 48 urte. Hau ere oso gaztetik hasia zen lanean. Tostartekoa.

J.L.: Altuerako armadorea. 48 urte.

L.B.: Altuerako arrantzalea. 51 urte. Gaur egun, ordezkari sindikala da.

P.P.: Baxurako arrantzalea izandakoa. 35 urte.